

2016-06-28ko OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2016ko ekainaren 28an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesus Maria Alonso Insausti, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: 0.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Olaia Nieto Legarra, Mikel Gotzon Iturbe Saizar eta Jose Ignacio Imaz Bengoechea.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: 0.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide-kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

AURREKO AKTAK ONARTZEA (2016-04-26; 2016-05-31).

Bi Osoko Bilkuren akta aurkeztu dira onartzeko: 2016ko apirilaren 26koa eta 2016ko maiatzaren 31koa.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du, bere taldeak (EH Bildu) bi gauza dituela esateko:

1. Euskararen erabilerari buruz, esaldi batzuk ez direla ulertzen eta, agian, aktak euskara teknikariari pasa behar zaizkiola, zuzen ditzan.
2. Akats batzuk nahi gabe eginda daudela, baina beste gauza batzuk nahita eginda daudela, beraien ustez.

Lehenik honako hauek aipatu ditu:

a) Apirileko aktan, hamargarren puntuan (AGIri buruzkoa), azken paragrafoan, eztabaidan, hau gertatu zen:

Alde batetik, Imaz zinegotziak esan zuen: "Etorkinei sarrerak kentzen ari gara, eta mahaian dauden zenbait udalkideren familiak kanpotik etorri dira eta diru-laguntzat jaso dituzte. ". Eta aktan ez da horrela jaso.

b) Apirileko aktan, bigarren orrian, Mikel Iturberen adierazpena dago jasota, baina hori ez zen horrela esan. Esaten ari ziren enpresa bati zigorra jarri zitzaiola zaborra gaizki ateratzeagatik, eta honela izan zen aipamena: ze arraroa, orain, PNV agintean dagoenean, enpresa bati zigorra jartzea zaborra gaizki ateratzeagatik, eta, lehen, aurreko legealdian, PNVko kide baten enpresak zaborra gaizki ateratzen zuela, eta ez zigortua izatea. Testu hori ere aldatu behar da.

c) Eta maiatzeko aktan, hirugarren orrian: parkeak estaltzeari buruz, Olaia Nieto zinegotziak esan zuen ea ezin ote zen sei edo zazpi hilabetez itxaron.

Ondoren, beste akats batzuk nahita eginda daudela aipatu du:

a) Apirileko aktan, AGIri buruzko eztabaidan hau gertatu zen: "bestalde, Imaz zinegotziak galdetu zuen ea Iruran zenbat pertsonak jasotzen duen AGI. Eta alkateak ez zekiela erantzun zuen. Eta Imaz zinegotziak sei pertsona direla erantzun zuen. Eta gero galdetu zuen ea non dagoen "efecto llamada" delakoa, eta adierazi zuen Caritasek ere salatu duela neurri hau. "Eta Caritas Bildukoa al da?" galdetu zuen, eta galdera horri alkateak ezezkoa erantzun zion."

Eta, orain, adierazi du hori aktan agertu behar dela eta garrantzitsua dela galdera hauek aktan islatzea, alkatearen ezjakintasuna islatzen dutelako.

Alkateak erantzun du, bere ustez, akta ondo dagoela eta akta idazkariak egiten duela.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak adierazi du idazkariari eskatu ziola adierazpen hauek aktan agertzea, eta esandakoa ez dela agertu. Ezin dela akta horrela onartu, informazioa ezkututzen ari direlako eta informazioa garrantzitsua delako.

Eztabaida amaituta, bozketa egiten da:

-2016-04-26ko akta.

Bozketa: 5 baiezko (EAJ); 4 ezezko (EH Bildu). Onartuta geratzen da.

-2016-05-31eko akta.

Bozketa: 5 baiezko (EAJ); 4 ezezko (EH Bildu). Onartuta geratzen da.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak galdetu du ea euskara akatsekin onartuko diren, eta alkateak erantzun du akatsak zuzenduko direla.

Jose Ignacio Imazek, gainera, galdetu du ea borondatez egindako akatsak zuzendu gabe geratuko diren.

Alkateak erantzun du ez dagoela borondatez egindako akatsik.

Eta Ainhoa Ugaldek galdetu du, ez bada borondatez egin, zergatik ez den islatzen. Azkenean, esandakoa islatzea bakarrik eskatu du.

BIGARREN GAIA

ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2016/106tik eta 2016/118era DEKRETU BITARTEAN.

Alkateak dekretu hauen berri eman dio Udalbatzari: 2016ko 106. zenbakitik 2016ko 118. zenbakira bitartekoak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN GAIA

OHZREN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Irurako udalerraren lurzoru eta ondasun higiezinaren eraikin hiritarren balio-txostenerako proposamena bidali du, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren likidazioa egiteko helburuz.

Aurreko balioespina 2011n egin zen, hau da, duela 15 urte, eta foru-arauaren arabera, 8 urtez behin berrikusi behar da.

Txostenen bitartez, lurren eta eraikinen katastro-balioa kalkulatzen da, horiei zergaren kuota aplikatuta. Kuota desberdina izan daiteke bizitegi-lurzorua edo industria-lurzorua den kontuan izanik. Irurako Udalaren kasuan, bizitegi-lurzorua kuota %0,2 da, eta industria-lurzorua, berriz, %0,5.

Proposatutako katastro-balioespenei dagokienez, ondorengo adierazi behar dugu:

A) Bizitegi-erabilera.

Por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa se remite la propuesta de ponencia de valores de suelo y las construcciones de los bienes inmuebles de naturaleza urbana del municipio de Irura a los efectos de practicar la liquidación del Impuesto de Bienes Inmuebles.

La anterior valoración de efectuó en 2001 o sea hace 15 años y de acuerdo con la norma foral se debe de revisar cada 8 años.

Por medio de las ponencias se calculan los valores catastrales de los terrenos y edificios a los que se aplica la cuota del impuesto que puede ser diferente en cuanto al suelo de uso residencial o suelo industrial. En el caso de este Ayuntamiento de Irura la cuota para el suelo residencial es de 0,2% y 0,5% respectivamente.

En cuanto a las valoraciones catastrales propuestas, debemos de señalar lo siguiente:

A) Uso residencial.

Egungo balioekin erkatuz gero, honako emaitza hauek lortzen ditugu:

- Lurzoruaren balioa %10 igo da herriguneko bizitegi-gunean, eta %3 eta %10 jaitsi, aldiz, gainerakoetan.

- Eraikinen balioa %22tik %6ra bitartean igo da.

Guztira, zerga-oinarria (katastro-balio guztien batura) %13 igo da: 87.991 mila eurotik 99.726 mila eurora.

B) Industria-erabilera.

Egungo balioekin erkatuz gero, honako emaitza hauek lortzen ditugu:

- Lurzoruaren balioa %20 jaitsi da, egungo balioen aldean.

- Eraikinaren balioa %20 igo da.

Guztira, zerga-oinarria %7 jaitsi da, eta 36.406 mila eurotik 33.939 mila eurora igaro da.

C) Oinarriak eta errendimenduak guztira. Denera, zerga-oinarria 124.398 mila eurotik 133.659 mila eurora igaro da: %8 igo da.

Kuota errealean kasuan, 349 mila eurotik 364 mila eurora igaro gara, hots, %4 igo dira (urteko kuotak aplikatuta, beti).

Banakatuta:

- Bizitegi-erabilerako ondasunen jabeek %13 gehiago ordainduko lukete batez beste.

- Industria-ondasunen jabeek %7 gutxiago ordainduko lukete batez beste.

Comparándolos con los valores actuales se obtienen los siguientes resultados:

-El valor del suelo aumenta en un 10% en la zona residencial del núcleo urbano y baja en un 3% y en un 10% en el resto.

-El valor de la construcción sube entre un 22% y un 6%.

En total la base imponible (suma de todos los valores catastrales) sube un 13%: de 87.991 miles de euros a 99.726 miles de euros.

B) Uso industrial.

Comparándolos con los valores actuales se obtienen los siguientes resultados:

-El valor del suelo desciende un 20% respecto a los valores actuales.

-El valor de la construcción aumenta un 20%.

En total la base imponible desciende un 7% pasando de 36.406 miles de euros a 33.933 miles de euros.

C) Bases y rendimientos totales.

En total las bases imponibles pasan de 124.398 miles de euros a 133.659 miles de euros: un aumento del 8%.

De las cuotas reales pasamos de 349 miles de euros a 364 miles de euros, es decir, un aumento del 4% (siempre aplicando las cuotas actuales).

Desglosados:

-Los propietarios de bienes de uso residencial pagarían un 13% más de media.

-Los propietarios de bienes industriales pagarían un 7% menos de media.

D) Kuota berrien proposamenak.

Hona hemen azken proposamena:

- Karga-tasa orokorra: %0,18.

- Lurzoru industrialeko edo tertziarioko ondasun higiezinaren karga-tasa: %0,54.

Hori ikusita, Udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

ERABAKIA

Lehen.- Behin-behinekoz onartzea Irurako Udaleko zerga-ordenantza hauek aldatzea:

ONDASUN HIGIEZINEI BURUZKO ZERGAREN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEA:

Zergaren karga-tasa finkatzea kuota hauetan:

-- Karga-tasa orokorra: %0,18.

-- Lurzoru industrialeko edo tertziarioko ondasun higiezinaren karga-tasa: %0,54.

Aldaketa hauek 2017ko urtarrilaren 1ean jarriko dira indarrean.

Bigarrena.- Akordioa eta espedientea jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Tokiko Ogasunen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak jasotakoa betez, eta dagokion iragarkia Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta Udal honetako iragarki-taulan argitaratzea. Izapidetzerako (tramiterako),

D) Propuestas de cuotas nuevas.

La propuesta sería la siguiente:

-El tipo de gravamen de carácter general: 0,18%.

-El tipo de gravamen para bienes inmuebles situados en suelo industrial o terciario: 0,54 %.

Ante ello, el Pleno, acuerda por unanimidad de los presentes, adoptar el siguiente

ACUERDO

Primero.- Aprobar con carácter provisional la Modificación de las siguientes Ordenanzas Fiscales de este Ayuntamiento de Irura:

MODIFICACION DE LA ORDENANZA FISCAL DEL IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES:

Fijar el tipo de gravamen en las siguientes cuotas:

--El tipo de gravamen de carácter general: 0,18%.

--El tipo de gravamen para bienes inmuebles situados en suelo industrial o terciario: 0,54 %.

Estas modificaciones entrarán en vigor el 1 de enero de 2017.

Segundo.- Someter el acuerdo y el expediente tramitado a información pública, de acuerdo con las normas señaladas en la Norma Foral 11/1989, de 5 de Julio, de las Haciendas Locales de Gipuzkoa y mediante la publicación del Anuncio correspondiente en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa y Tablón de Anuncios de esta Entidad. Las normas que regulan este

arau hauek beteko dira:

a) Espedientea Udaleko Idazkaritza Kontu-hartzaitzan egongo da.

b) Espedientea aztertzeko eta erreklamazioak aurkezteko epea 30 egun baliodunekoa izango da, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita (lehen egun baliodunetik), eta Udalbulegoko lanorduetan.

c) Erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluan jasota datozenek.

d) Erreklamazioak Irurako Udaleko erregistro orokorrean edo Administrazio Prozeduraren Legearen 38. artikulua jasotako tokietan aurkeztu beharko dira.

e) Erreklamazioa Udalbatzaren aurrera eraman beharko dute.

Hirugarrena.- Erreklamaziorik aurkezten ez bada, akordioa behin betiko bihurtuko da, eta testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

trámite serán las siguientes:

a) Lugar donde se encuentra el expediente: Secretaría-Intervención de este Ayuntamiento.

b) Plazo para examinar y presentación de reclamaciones: 30 días hábiles desde el día siguiente hábil al de la publicación de este Anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en horas hábiles de la Oficina Municipal.

c) Quién puede presentar reclamaciones: Los señalados en el art.17 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio.

d) Donde se pueden presentar: En el registro General del Ayuntamiento de Irura o en los lugares señalados en el art. 38 de la Ley de Procedimiento Administrativo.

e) Ante quién se presenta la reclamación: El Pleno del Ayuntamiento.

Tercero.- En el caso de que no se presente ninguna el acuerdo devengará en definitivo y se procederá a la publicación de su texto completo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

LAUGARREN GAIA

EREIN 2016 PROGRAMARAKO IRURAKO UDALAK ESKATUKO DUEN DIRU-LAGUNTZA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Alkateak Dekretu hau onartu du:

“Argitaratu da 2016ko ekitaldirako Agindua, 2016ko maiatzaren 18koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatzeko laguntzen deialdia egiten duena.

Irurako Udalak proiektu bat sartu nahi du programa horretan: San Migel Plaza 6ko eraikina berritzeko lanak, haur-eskola berria.

Proiektuaren aurrekontua 201.586 eurokoa izango da.

Hori ikusita, eta indarrean dagoen legediak onartzen dizkidan eskumenez baliatuta,

ERABAKI DUT:

Lehena.- Proiektu hori aurrera eramatea onartzea.

Bigarrena.- Udalbatzari akordio hori jakinaraztea, egingo duen lehenengo bileran, erabakia berresteko, hala badagokio.”

Ainhoa Ugalde zinegotziak adierazi du ados dagoela diru-laguntza eskaerarekin, baina lehenago egin behar zela Hirigintza Batzordeko bilera, informazioa aurkezteko.

Alkateak erantzun du presa zegoela erabakia hartzeko, diru-laguntza eskatzeko epea ostegunean amaitzen zelako, eta ez duela arazorik ikusten gaia mahai gainean uzteko Hirigintza Batzordea egin arte.

Eta horrela, Udalbatzak aho batez utzi du gaia mahai gainean, aurrerago aztertzeko.

BOSGARREN GAIA

ZIGORRA BETE ORDEZ, KOMUNITATEAREN ALDEKO LANAK EGITEKO ESKAERA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Irurako biztanlea den S.H.Q. jaunak eskatu du komunitatearen aldeko lanak Iruran egitea, Kode Penalaren zigorra bete beharrean, dagokion epaiaren arabera.

Ikusirik, Irurako Udalak onartutako “Espetxe–zigorrak Irurako herriaren alde lan eginez ordezkatzeko araudia” (GAO 2014.09.09), zerbitzuetako arduradunak eta gizarte langileak egindako proposamena eta 2016ko maiatzaren 25ean gizarte zerbitzuetako batzordeak proposatutakoa.

Kontuan hartuta Toki Jaurbideko legediak emandako eskumenak, aho batez, erabaki hau hartu da:

E R A B A K I A

Lehena.- S.H.Q. – 47499467 Z/656 S.E. eskaera onartzea.

Bigarrena.- Astebetean, astelehenetik ostiralera, 10 lan-saio burutzea (20 ordu) Irurako hiri-altzariak garbitzen (farola eta bide-seinaleak).

Eta, gainera, lan hori bete behar izatea aipatu den Udal Ordenantzaren arabera eta dagokion araudiaren arabera.

Hirugarrena.- Akordio hau jakinaraztea interesdunari eta dagokion erakunde ofizialari.

SEIGARREN GAIA

UDALSAREA 21 JASANGARRITASUNERAKO UDALERRIEN EUSKAL SAREA IZENEKOA ONARTZEA.

Akordio proposamen hau aurkeztu da:

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TOKIKO JASANGARRITASUNERAKO KONPROMISOA BERRITZEKO AKORDIOAREN ATXIKIMENDUA; "UDALSAREA 21 JASANGARRITASUNERAKO UDALERRIEN EUSKAL SAREA"

Irurako Udalak jasangarritasun prozesuen aldeko konpromisoa azaldu du, Tokiko Agenda 21 ezarritz.

Hala, tokiko konpromisoaren bidez jasangarritasun globalaren alde egiteko etengabeko hobekuntza-prozesua jarri du abian. Eginkizun horretan, udaletako Tokiko Agenda 21ak indartzea helburu duen Sareko kide izateak dakartzan onurak azpimarratzen ditu Udalak.

Aurrez adierazitakoarekin bat, Irurako Udalak, aho batez, hau

ADHESIÓN AL ACUERDO DE RENOVACIÓN DEL COMPROMISO POR LA SOSTENIBILIDAD LOCAL EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO: "UDALSAREA 21, RED VASCA DE MUNICIPIOS HACIA LA SOSTENIBILIDAD"

El Ayuntamiento de Irura está comprometido con los procesos de sostenibilidad local a través de la implantación de la Agenda Local 21.

Esta implantación es un proceso de mejora continua a favor de la sostenibilidad global desde el compromiso local. Y en este empeño, el Ayuntamiento destaca los beneficios de la pertenencia a una Red cuyo objetivo es el fortalecimiento de las Agendas Locales 21 municipales.

Y es por ello que el Ayuntamiento de Irura, por unanimidad de los presentes

ERABAKI DU:

ACUERDA :

Lehenengoa.-“2016ko apirilaren 27an onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Jasangarritasunerako Konpromisoa berritzeko Akordioa “Udalsarea 21 Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea” dokumentuari atxikimendua agertzen diola eta bere gain hartzen dituela akordio horretatik eratorritako erantzukizunak”.

Bigarrena.- Pertsona hauek izendatzea:

- Ana Jesús Leunda Gurruchaga (*Alkatea*), arduradun politikoa.
- Iñaki Arregi Garitano arduradun teknikoa.

Primero.-Su adhesión al Acuerdo de Renovación del Compromiso por la Sostenibilidad Local en la Comunidad Autónoma del País Vasco “Udalsarea 21, Red Vasca de Municipios hacia la Sostenibilidad” aprobado el 27 de abril de 2016, asumiendo con esta firma los compromisos municipales que de él se derivan”.

Segundo.- Designar a D^a Ana Jesús Leunda Gurruchaga (Alcalde-Presidente), como responsable político y a D. Iñaki Arregi Garitano como responsable técnico.

ZAZPIGARREN GAIA

IRAKASKUNTZAKO ERAKUNDEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Kultura, Euskara, Gazteria eta Partaidetzari buruzko Informazio Batzordean, 2016ko ekainaren 1ean eginiko bileran, irakaskuntzako erakundeentzako 2016ko diru-laguntzak onartzea proposatu da.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez erabaki du honakoa:

ERABAKIA:

Lehenengoa.- Erakunde hauentzako 2016ko diru-laguntzak onartzea :

-Ibilaldia: 160 €.

-Araba Euskaraz : 160 €.

-Kilometroak : 160 €.

-Nafarroa Oinez: 260 €.

-Herri Urrats: 260 €.

Bigarrena.- Onartutako diru-laguntzak zuzenean ordaintzea, 2016ko Aurrekontuaren partida honetatik: 1.0000.481.335.00.00.2016.

ZORTZIGARREN GAIA
EUSKALGINTZAKO ERAKUNDEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK
ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Euskalgintzako erakunde batzuk diru-laguntza eskatu diote Udalari. Gaia aztertu ondoren, Kultura, Euskara, Gazteria eta Partaidetzari buruzko Batzorde Informatiboak, 2016ko ekainaren 1ean eginiko bileran, aldeko proposamena egitea erabaki du.

Halaber, diru-laguntza hau zuzeneko emakida da eta Udalaren 2016ko aurrekontu orokorrean izenez esleituta dago.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez erabaki du honakoa:

ERABAKIA:

- 1.- Kontseilua erakundeari 300 euroko diru-laguntza ematea.
- 2.- Banaiz Bagara erakundeari 500 euroko diru-laguntza ematea.
- 3.- Onartutako diru-laguntzak zuzenean ordaintzea, 2016ko Aurrekontuaren partida honetatik: 1.0000.481.335.00.00.2016.

BEDERATZIGARREN GAIA

28 KANALAREN DIRU-LAGUNTZA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.
Idazkari kontu-hartzaileak adierazi du ez dutela oraindik dokumentazioa aurkeztu.
Eta Udalbatzak aho batez onartu du gaia mahai gainean uztea, erakundeak dokumentazioa aurkeztu arte.

HAMARGARREN GAIA

GALDE-ESKEAK.- Gai hauek jorratu dituzte:

a) Goiko parkea estaltzea:

Alkateak adierazi du Goiko Parkearen ingurua berregin behar dela, askotan esan dutela, eta mediku-etxearekin ere badabiltzala, obra berria egin edo ez. Obra berriak egin behar badira ez omen da momentu ona parkea estaltzeko. Lehenik eraikina moldatu egin beharko dela eta gero parkea estali, eta ez alderantziz. Ideia hori beti adierazi dutela, eta teknikariarekin kontsultatu ondoren, arrazoia eman diela. Ikusita ume kopurua handitzen doala eta beren ongizatea dela helburua, hitza beteko dute: aurtengo beheko parkea estaliko da eta hurrengo urtean goiko parkea. Aurtengo aurrekontuan partida badago beheko parkea estaltzeko, baina kopurua asko jaitsi daiteke, eta soberan geratzen denarekin goiko parkea estal daiteke. Dena den, hurrengo hirigintza batzordean aztertuko da proiektua.

Ainhoa Ugalde zinegotziak adierazi du gauza bat salatu nahi duela: 31ko Osoko Bilkuran gai hau eztabaidatu zela eta esan zela bi parkeak estaltzeko proiektuak aztertuko zirela, aurrekontuak... Gero, ekainaren 4an, "El Diario Vasco" egunkarian irakurri genuen beheko parkearen obrak laster hasiko zirela.

Alkateak erantzun du berri hori ez zela egia.

Eta Ainhoa Ugalde zinegotziak erantzun du, hori horrela bada, egunkariari zuzenketa egiteko eskatu behar zaiola.

Jesús María Alonso zinegotziak adierazi du egunkariko adierazpen askatasuna dela, eta EAJren hauteskunde-programan beheko parkea estaltzeko asmoa agertzen bazen ere, gero zuzenketa-prozesu bat egon dela eta, bertan, guztiei entzun zaiela.

Publikoko pertsona batek adierazi du sinadurak jaso ondoren esan dela jendea engainatu egin zela edo gezurretan ibili zirela. Pertsona honek dio zintzo ibili direla, jendea informatu egin dela eta libre sinatu dutela. Gaineratu du beheko parkea han dagoela, baina euria egiten badu, goiko parkean ez dagoela leku estalirik umeak egoteko.

Publikoko beste pertsona batek adierazi du beheko parkean txikienak egoten direla, baina goiko parkean jende gehiago biltzen dela, ikastolatik gertuago dagoelako edo dena delakoagatik. Azterketa bat egitea beharrezkoa litzatekeela.

Alkateak erantzun du pertsona bat etorri zitzaioela esanez "si lo hubiera sabido, no hubiera firmado".

Ainhoa Ugalde zinegotziak erantzun du pertsona bakar batek esan badu hori, ezin dela orokortu.

Alkateak erantzun du berak ez zuela horrela esan, komentario bat besterik ez zuela egin. Eta erantsi du hasiera batean ikerketa bat egin zutela eta ikusi zutela beheko parkean haur txikienak biltzen zirela, eta inoiz ez diotela ezetzik esan goiko parkea estaltzeari, baina, obra horiek egin bitartean, toki estaliak badaudela goialdean: eliz ataria, trinketea, txiki parkea...

Mikel Iturbe zinegotziak adierazi du ikuspegi teknikitik erokeria dela Iruran bi parke estalita izatea, eta goiko parkeak daukala erabilera handiena. Gainera, haurtzaindegia mediku-etxean jarri nahi bada, ez daukala zentzurik beheko parkea estaltzeak.

Alkateak erantzun du haurtzaindegi berriaren obra oraindik ez dela finkoa.

Jesús María Alonso zinegotziak adierazi du dena hobetu daitekeela. Beheko parkearen egoera ikusita, estaltzea pentsatu zutela, baina goikoa ere estal daitekeela, kontuan izanik herriko jendeak bertan egiten duela bizitza handia.

Publikoko pertsona batek nabarmendu du proposamen hori alderdi baten hauteskunde-programan azaltzeak ez duela esan nahi aldatu ezin daitekeenik.

Mikel Iturbe zinegotziak azpimarratu du EAJk ez duela aldatu nahi, porrota onartzea bezala litzatekeelako.

Jesús María Alonso zinegotziak ukatu egin du hori.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak lehen aipatu den egunkariko albisteari buruz adierazi du ez zela zuzenketarik eskatu, azken finean ados zeudelako albistearen edukiarekin, hau da, beheko parkea estaltzearekin.

Olaia Nieto zinegotziak galdetu du ea biztanleekin hitz egin duten.

Alkateak baietz erantzun du.

Publikoko pertsona batek galdetu du ea nola egingo den estaldura.

Alkateak erantzun du oraindik erabaki gabe dagoela, baina batzar batean azalduko dutela dena: materialak, estruktura, aurrekontua.

- b)** (bukatzeko) Alkateak adierazi du txiki-parkearekin bi arazo daudela: alde batetik egokitasuna, eta hori Udalari dagokiola, eta beste aldetik garbitasuna, eta hori trinketeko tabernaren erantzukizuna dela. Lehen puntuari dagokionez, beraiek urtebete daramatela Udalean eta konponketa batzuk egin dituztela. Bilera bat egin omen dute teknikoekin eta bi erabaki hartu dituztela: bat, gutun bat bidaltzea gurasoei eta, bestea, sarea eta plakak jartzea umeek baloiarekin puska ez dezaten. Aurrekontua eskatu dutela, onartu dela eta obra martxan dagoela.

Olaia Nieto zinegotziak adierazi du sarea irekita dagoela eta egoera arriskutsuan dagoela, eta ez dela konpontzen konponketak egiten bakarrik.

Alkateak adierazi du Udalak ez duela karrera ateratzen txiki-parkearekin.

Ainhoa Ugalde zinegotziak adierazi du irakurri duela gutuna, baina txiki-parkera beste udalerrri batzuetako umeak ere etortzen direla eta komenigarria dela idatzi hori lokalean bertan jartzea.

Publikoaren artean dagoen pertsona batek adierazi du, agian, lokala itxi beharko litzatekeela epe batean, jendeak bere falta nabaritzeko; eta, orain, nola dagoen ikusita, enpresa profesional bat aukeratu beharko litzatekeela garbitzeko.

Olaia Nieto zinegotziak adierazi du instalazioa oso egoera arriskutsuan dagoela eta konponketak azkar egin behar direla, istripua gertatu baino lehen.

Alkateak adierazi du arazoaren gainean daudela, eta sarea eta plakak jartzen ari direla.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:40ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA